The book cover features a central illustration of a woman with long, flowing red hair and blue eyes. She is wearing a white long-sleeved top, a black skirt, and a long, flowing yellowish-brown cape. She holds a sword with a silver hilt and a long, straight blade. The background is a deep red, with a large, bright orange moon in the upper center. The entire scene is framed by an ornate, golden border with intricate scrollwork and decorative elements. The title 'ODOL ILARGIAREN ALABA' is written in large, stylized letters across the middle. Below the title is a small decorative flourish, followed by the author's name 'KEPA IRIBAR'. At the bottom, there are two circular decorative motifs: one on the left with a wave-like pattern and one on the right with a flame-like pattern, flanking the publisher's name 'erein'.

KEPA IRIBAR

erein

ODOL ·  
ILARGIAREN  
ALABA

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

---

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.*

*1. argitalpena: 2026ko ekainean*

Azalaren diseinua eta maketazioa:  
Iván Landa | Erein





© Kepa Iribar

© EREIN. Donostia 2026


ISBN: 978-84-1093-126-8

L. G.: D 492-2026

EREIN Argitaletxea  
Tolosa Etorbidea 107  
20018 Donostia  
[erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)    

Inprimatzailea: Ulzama  
Altzutzate kalea, 51  
31620 Huarte, Nafarroa  
T 948 332 808  
[contacto@ulzama.com](mailto:contacto@ulzama.com)  
[www.ulzama.com](http://www.ulzama.com)





ODOL  
ILARGIAREN  
ALABA



KEPA IRIBAR

# RANJARTIAN



MANGU

BASO  
ILUNA

LEHEN MURRUA

COTOLEKUA

SUA  
HIRIBURUA

GIZA  
HOSTOAK

SUMENDIEN  
HORMA

MILA  
UR JAUZIEN  
LURRALDEA

LAKU  
GORRIEN  
KOSTALDEA

ERREGE

BIGARREN MURRUA



LAINOA



TAR  
LURRALDEA

HIRUGARREN MURRUA

BETTEREKO  
LAINOAREN  
MENDIKATEA

NEKAZAL LURRAK

MODRON  
BASOA

ZINGIRA

BIDEA

SEFROST  
OIHANA

AHOTZ  
NEGARTIEN  
BASOA

LURRA  
HIRIA

SHERT

DUNA  
MUGIKORREN  
BASAMORTUA

MUINO MORTUAK

LAINOA

PORTUA

*Lantza beltz batek bere bularra zeharkatu aurretik,  
RanjärtEskuzabalaerregearenazkenhitzakizanziren:  
«Odol-ilargiaren egunean, nire primak hilko zaitu,  
Odol-ilargiaren alabak».*

Ranjartianeko Aintzinako  
Historia Galduaren liburutik

## ☞ THESA ☞

**S**ua zirtaka nola ari den begiratzeak liluratu egiten nau. Orduak emango nituzke txinparta horiei begira. Gauez, afalondoan, beheko suaren aurrean eseri, eta ama eta aita txor-txor hizketan ari direla, txundituta egoten naiz sugarrei begira. Sekulako bakea sentitzen dut. Aita, afalosteko bere tabakoaz gozatzen, pipari tira eta tira. Ama, hurrengo eguneko gisaturako barazkiak, usain-belarrak, txerrikia edo arkumekia... pertzean prestatzen.

Sukaldea iluntasunean murgildurik dago, han eta hemen erle argizariz egindako kandelek argitzen dute apur bat, itzal jostariak sortuz hormetan. Ez da etxe handia, ezta berria ere, ez daukagu oparotasunik edo luxurik, baina gustuko dut, nire etxea da. Nire familiaren etxea. Modron basoko familia xume baten bizitokia.

Gaur ere suari begira nengoen, Jörgen memelo hori agertu den arte.

—Liv! Zoaz egur gehiagoren bila!

Neba astuna izatea sekulako zama da. Zenbat aldiz amestu ote dut ahizpa bat izatearekin! Mutila egokitu behar zitzaidan, eta ez edozein mutil, ez: Jörgen. Ezin gara ezberdinagoak izan. Bera ilehoria da, ilea horia bezain gogor eta menderaezina dauka, irrigarri xamarra nire iritzirako, baina ikusi egin behar da bera zeinen harro dagoen. Eguzkiak beltzarandutako azala dauka. Begiak ditu politak, hori onartu beharra dago, urdin kolore bizi-bizikoak. Bekain iletsu batzuen azpian ezkutatuak. Sudurra handia dauka, handiegia. Bere gorputza bezalakoa, handia eta indartsua, hankak batik bat. Basoko lanak ere laguntzen du horretan.

Nik ile beltza daukat. Ile luze eta beltza, hondorik gabeko ur-putzu sakon bat baino ilunagoa, beti solte, gehienez oihalezko diadema bat erabiltzen dut hari eusteko. Azala argi-argia daukat, eguzkiak berehala mintzen duen horietakoa. Aurpegi arrunta, orekatua anaiaren aldean: begi txiki biziak, marroi kolorekoak. Sudur borobil eta zapal antzekoa, eta belarriak ere taimana egokikoak. Gauza bakoitza bere tokian eta taimanan, anaiak ezin dezake gauza bera esan! Aurpegi-ko azala, berriz, orezta gorrixkaz betea.

Esandakoa, gaua eta eguna bezain ezberdinak gara, baina neba-arrebak azken finean, eta berari esango

ez diodan arren, aitortu beharra daukat maite dudala memelo hori.

—Zergatik ez duzu zuk ekartzen? —oihu egin diot.

—Liv, ekar ezazu zuk mesedez, anaia artaldea gobernatzen ari da orain —esan dit aitak goxo.

—Ondo daaaaaaaa! —errukia eragiteko begiak jarritz.

Zutitu, mahai albotik pasatzerakoan opiltxo bat lapurtu, eta kalera joan naiz korrika, zurrunbilo baten moduan. Amak hala esaten dit: «Zaude geldirik, zirimola baten parekoa zara!».

Etzetik atera eta erabateko iluntasunak hartu nau. Eskerrak ilargiak laino artetik ihes egin, eta gaua argitu duen. Herrixkako azken etxea da gurea, bide nagusitik begiratuta azkena. Etxe alboan bertan zuhaitzak hasten dira. Era amaigabea, bata bestearen alboan, zeinek enbor luzeagoa, zeinek adar indartsuagoak, zeinek hosto ederragoak... lehiatzen ariko balira bezala. Modron basoa pagadi amaigabe bat da. Behar dugun guztia ematen digu: fruituak, jateko eta janzteko behar ditugun animaliak, sendabelarrak, ura, babesa... Dena daukagu hemen. Inoiz ez naiz basotik atera, basoa ez den beste ezer ez dut ezagutzen. Beno, hori ez da erabat egia: batzuetan, inork ikusten ez nauela, basoaren hego-ekialdeko mugara joan eta itsaslabarretara iristen naiz. Eta itsasoa ikusten dut, amaitzen ez den ur masa hori. Eguna joan eta eguna etorri, zure begien aurrean zuhaitzak baino ikusten ez

dituzunean, itsasoak eskaintzen duen oztoporik gabe-ko ikusmira biziki eskertzen da, nik bai behintzat. Ez da erabat egia, hala ere, oztoporik ez dagoela, Lainoa dago. Irla guztia inguratzen omen duen Lainoa. Ez pentsa zuhaitzak maite ez ditudanik, ez da hori. Izugarri atsegin ditut: haiek besarkatzea, begiak itxi eta enbor barruko izerdiaren mugimendua sentitzea. Pagoak maite ditut. Baina itsasoaren paisaia irekia ere bai. Isilean gordetzen dudan zerbait da, Modronen jaiotakoak galduta sentitzen baitira inguruan zuhaitzen bat ez badago.

Norbait hiltzen denean, erre egiten dugu Su Sakratuan. Garrek bere gorputza –haragi, gihar, zuntz, eta hezur– hauts bihurtzen dute. Mundu honetan ibiltzeko arimak erabili duen bizilekua suntsitzen da, eta arima askatu. Basoaren erdian Galad bizi dela sinesten dugu, Arimen Zuhaitza, inork aurkitu ezin duen tokian. Eta bere adarretan bat egiten dugu gure arbasoekin, eta atzetik etorriko zaizkigunen zain egoten gara, betiko.

Gurasoek ez dute gustuko ni itsaslabarretara joatea, arriskutsua dela diote. Jakingo balute hondartza-txo ñimiño batera ematen duen xenda aurkitu nuela behin, a zer-nolako errieta! Nahi gabe izan zen, labarren alboan, norabide zehatzik gabe nenbilen batean, bidexka bat ikusi nuen, eta jarraitu egin nion. Har-kaitz artean ezkutaturik zegoen, eta hondartza bate-raino iristen zen. Hondartza oso txikia. Itsasoan sartu nintzen, neure bizitzan lehen aldiz. Harrezkero bertara

jo izan dut noizean behin, biluzik bainatzea plazer handia da. Nik uste inork ez dakiela hondar zati hori hor dagoenik ere. Itsasoari sekulako beldurra diote denek. Izaki beldurgarriak bizi omen dira bertan. Agian hala izango da, baina nik ez dut sekula halakorik ikusi. Eta esan dudan moduan, ni ez naiz inoiz basotik irten. Eta gure basora kanpotarrak ere apenas etortzen diren. Munduak ahaztua du Modron.

Izatez, irlaren hego-ekialdean dago gure basoa, gure lurraldearen toki garrantzitsu guztietatik urrun, nik uste. Ranjartian da gure irlaren izena. Oso handia da, lurralde ezberdin asko ditu, baina nik ez ditut ezagutzen.

Egur batzuk hartu ditut besoetan, abar txikiak eta handiak, sua pizteko egokiak. Sua benetan elikatzeo enborrak aitag eta anaiak ekarriko dituzte bihar. Izan ere, 16 urteko neskato batek ezin omen du aizkorarik erabili. Txorakeriak dira horiek. Ezkutuan hartu izan dut aizkora, eta haiek uste dutena baino hobeto moldatzen naiz.

Etxera bueltan noala hots arraroak iritsi zaizkit herrixkatik. Kolpez apurtutako aterren bat, urruneko oihuren bat, eta kanpaia. Kanpai hotsa behin eta berriz, alarma hotsa, bat-batean isildu den arte. Zerbait gertatzen da. Etxea begi-bistan daukat, anaia atera da korrika aizkora eskuan duela. Atzetik, aita, arkueta eta geziak eskuetan.

«Baina zer arraio!», pentsatu dut.

Ama ikusi dut korrika niregana. Izua aurpegian marraztuta dakar. Ni nagoen tokira iritsi denean, esku kolpe batez abar guztiak lurrera bota dizkit. Bi eskuekin sorbaldetatik heldu eta indartsu astindu nau.

—Liv! Ihes egin behar dugu, zatoz nirekin!

—Baina zer diozu... aita... Jörgen...

Amak sekula ez bezalako tinkotasunez hitz egin dit.

—Liv! Egin esana! Zatoz nirekin, herrixkari erasoka ari dira.

Eskutik heldu eta basoaren bihotzera daraman bidexkan barneratu gaitu amak. Azken aldiz begiratu diot nire bizitokiari, lehen ke zutabeak ikusi ditut zerrurantz, etxe batzuk su hartuta daude.

Oso ezberdina da egunez zuhaitz artean lasai ibili, txori kantu artean, naturaz gozatuz, edo pagadi erraldoian gau beltzaren erdian ihesi joatea. Arnasestuka, amaren atzetik noa. Harrituta nauka bere martxa bi-ziak, ez nukeen esango halako sasoirik zuenik gure amak. Beharrak, beldurrak bultzatuta doa. Ez da baxtereroa gure ibilia, ez baita ondo ikusten. Oraintxe sustraiekin tupust egiten dut, oraintxe adar batek jotzen nau, oraintxe soinekoa sastraka artean kateatzen zait... baina okerrena ez da hori, okerrena da... ez dudala ezer ulertzen!

Arnasa mozterainoko kezka hartu du nire izate osoa.

—Ama... ama... gelditu...

Aurrera jarraitzen du.

—Ama... mesedez... —Negar zotinka hasi naiz.

Ama kolpean geratu da.

—Liv, maitea...

Bi eskuz laztandu du nire aurpegia, malkoak xukatu dizkit. Serio begiratu dit.

—Ulertzen dut zure ezinegona, baina ezin gara gelditu!

—Baina... baina... aita, Jörgen... gure etxea...

—Badakit, baina... benetan... segi aurrera! Ez gelditu!

—Zer gertatu da? Nork egin digu eraso?

—Iparraldekoak ziren, basotik kanpoko jendea. Baina orain ez du axola. Jarraitu egin behar dugu.

Buelta eman eta solasaldia amaitutzat eman du. Ez diot sekula horrelako erabakitasunik ikusi gure amari.

Pago erraldoiak dauden gune batera iritsi gara; lau lagun elkarki eskua emanda beharko lirateke enbor haiek inguratzeko. Eta haiek igarota, soilgune bat. Gora begiratu eta adarrik ez dago, zerua ikus daiteke. Milaka izar dirdiratsu. Belar hezearen gainean korrika jarraitu dugu, eta bat-batean, gure urratsek uxatutako ehundaka ipurtargi hegaldatu dira, instant bat lehenago zeruan ikusitako izarrak nire inguruan jirabiran mugituko balira bezala sentitzen dut. Egoeraren larria hain latza ez balitz, une magikoa dela esango nuke.

Soilgunea igarota, eraikuntza ezagun bat.

«Maeveren etxea da eta! –pentsatu dut–. Baina ez naiz inoiz bide honetatik etorri».

Maeve adineko emakume maitagarri bat da. Ba-soan bizi da, bakarrik. Zuhaitz, zuhamuxka, landare, eta sendabelar guztien izenak ezagutzen ditu. Izenak soilik ez, haien bertuteak eta arriskuak ere bai. Osasun arazoak dituen herrixkako biztanle oro hurbiltzen da atso atseginarengana. Nire adineko neska gazteek ahapeka diotenez, bestelako edabeak ere prestatzen ditu: maitasuna lortzekoak, inoren nahia menderatzekoak, eta abar. Nik ez ditut txorakeria horiek sinesten.

Etxolaren ate parean gelditu eta alde guztietara begiratu du amak. Badirudi segadaren baten beldur dela. Atea jo du. Hura zabaldu denean, Maeve agertu da, bere ile zuriak nahastuta, oherako jantziarekin, erdi-lo. Ni ikusi orduko bigundu zaio begirada. Estimua handia diogu elkarri.

Betidanik ezagutu dut gure etxera sarri etortzen. Amak sukaldeko mahaian esertzera gonbidatzen du agertzen den bakoitzean, eta esnea ogiarekin ematen dio. Emakumeak adin handia du, ahul itxura, baina sendoa da. Askotan, bere etxera laguntzeko agintzen dit amak. Eta beste askotan, gazta, ezitia, txerri haragi gatzatua, eta marmeladaren batekin otarra prestatu eta ni bidaltzen nau Maeveren etxera. Emakumeak goxo hartzen nau beti, eta belar haren edo fruitu honen ezaugarriak azaltzen dizkit.

—Zer gertatzen da, Segfrid?

—Herrixkari eraso egin diote, gizon armatuek.

—Moreek?

—Ezin izan dut ondo ikusi, baliteke.

—Sar zaitezte, agudo.

Etxean sartu gara. Atea itxi aurretik amak berriz begiratu du bidexkan inor ikusten ote duen.

—Berehala prestatuko naiz —Maevek.

Eta ez du gezurrik esan. Daukan adinerako, abiadura harrigarrian aldatu ditu arropak. Oihal lakarreko bere soineko maiztuaren gainetik kapa bat hartu, oinez egiteko lagun izango duen urki adar handiari heldu, eta konturatzerako, prest da. Etxean sartu garetik galdera batek zulatzen du nire burua, okilak gure basoko enborrak bezalaxe: «Nortzuk dira Moreak?», baina ez naiz ausartu ozen esatera.

Etxetik atera gara. Atearen aurrean ama eta Maeve elkarri begira geratu dira, hunkiturik. Bat-batean, besarkada estu batean bildu dira.

—Zer duzue? —galdetu diet.

—Gure bideak hemen banantzen dira —esan dit amak.

—Zer?!

Malkoak irristatu zaizkio masailetan behera.

—Bai, lazтана. Orain indartsua izan behar duzu. Maevek lagunduko zaitu.

—Baina... zergatik? Zurekin jarraitu nahi dut, eta aitari eta Jörgeni lagundu.

—Ez da posible. Zu ahalegindu zaitetz ihes egiten.

—Eta zu?

—Nik ere ahal dudana egingo dut.

Maevek eskua nire sorbaldan pausatu du. Goxo hitz egin du:

—Joan egin behar dugu.

Amak inoiz ez bezala besarkatu nau. Negarrez jarraitzen du. Ni ere hala ari naiz.

Nire ama aldentzen ikusi dut. Bizia eman zidana, lokartzeko eztiki kantatzen zidana, beti zaindu izan nauena, lehen hilerokoa izan nuenean nirekin eseri eta nire beldurrak apaldu zituena... Pago artean ezkutatu da, itzal artean galdu da. Hankak ezin mugiturik geratu naiz, lurrera josita bezala.

Nire egoeraren jakitun balitz bezala, eskuaz bizkarrara igurtzi, eta irribarre egin dit Maevek. Bere atzetik abiatu naiz.

Ez dut ezer ulertzen. Zer arraio ari da gertatzen? Nire bizitza osoa hankaz gora jartzen ari da gau marrikatu honetan.

## ☞ SHIR-TAR ☞

**B**asoan barneratzen jarraitu dugu. Gaueko hotsak ez dira egunekoak bezain atseginak. Hontzen ulua, gaueko karraskarien intziriak, igelen korrokak... ezer ikusten ez denean dena da beldurgarriagoa. Eta zer esanik ez gure pausoen zarata orbelean. Gure urratsen oihartzunak berak ere dar-dar batean jartzen nau, edozein unetan gizon armatuen enboskada baten espe-roan noa.

Maeve doa etengabe aurretik. Nik aspaldi galdu nuen norabidea. Berak ez, argi dauka nora goazen, antza. Isilik egin dugu tarte luzea, eta bat-batean, makurtu egin da.

—Zer gertatzen da? —galdetu diot ia xuxurlaka.

—Bidea libre dagoen begira nabil.

Denbora tarte labur baten ostean, zutitu eta aurrera jarraitu dugu. Basoko bideetako batera atera

gara. Jende gutxi iristen da honaino. Shir-Tar tranpa-jartzailearen etxerantz daraman bidexka da. Basoan bizi den ehiztaria da, beste gizakiengandik urrun. Oso noizean behin agertzen da herrixkan. Ia beti goizeko lehen argiek eguna esnatzen dutenean, edo gaua nagusitzen ari denean. Saldu beharreko animalia larruak, fruitu basatiak, pagatxak, basoko erleen ezta, edo bere eskuz egindako egurrezko tresnak saldu, eta hanka egiten du berriz. Ez da inoiz tabernan gertzen diru irabazi berria xahutzen, gainerako ehiztari gehienak bezalaxe. Ez. Berehala bueltatzen da baso ilunera. Urrunetik baino ez dut ikusi izan beti. Umea nintzenean, Jörgenek esaten zidan haurrak jaten zituela. Haurrak beldurtzeko kontuak. Behin, inori ezer esan gabe, bere etxera inguratu nintzen. Zuhaixka batzuen atzean ezkutatu eta atea zaindu nuen, hura ikusi nahian. Baina ez dakit nola, atzetik hurbildu zitzaidan, soinurik txikiena ere sortu gabe. Belarri ondoan xuxurlatu zidan: «Zer zabilta hemen, nes-kato?». Nire bizitza osoan ez dut hainbeste eta hain azkar korrika egin. Etxera iritsi eta atea trangatu arte ez nuen bakerik izan. Sekula ez dut bihotza hain era basatian punpatzen sentitu, erabat zoro. Orain sentitzen dudan antzera, Shir-Tarren etxea antzeman baitut urrunean.

—Maeve, hori tranpa-jartzailearen etxea da, goazen hemendik!

—Zaude lasai, Liv. Laguna dut eta.

Orduantxe bai ikaratu naizela. Gizon ilun horren etxera goaz.

Ateari bi kolpe lehor eman dizkio emakume eda-detuak. Berehala ireki du.

—Sartu zaitezte. Sumatu dut ke usaina, zerbait gertatu al da?

—Eraso egin ziotek herrixkari. Hanka egin behar duzue berehala.

Hitz horiek entzutea nahikoa izan da gizona marxan jartzeko. Gauzak prestatzen hasi da. Ez dit begiratu ere egin. Maevek azalpenak eman dizkio bitartean, nola iritsi garen kontatu dio.

Shir-Tarren etxola umila da. Bera zutik egoteko adinako altuera du, ozta-ozta. Harrizko horma lodiak. Bertako apaletan, zurezko tresneria dauka jatorduetarako: platera pare bat, ontzia, koilara, pitxarra... Arotz baten lanabes arruntenak ere bai, herrian saltzen dituen tresnak egiteko erabiltzen dituenak. Barruan ez dauka ehizarako erremintarik, horiek kanpoan izango ditu. Apaingarririk ez dauka etxe hark. Izkina batean ohea, beheko-suaren alboan, eta egongela bakarraren erdian mahaia.

Hormetako batetik harri bat mugitu du, ezkutalekua dauka pareta hark. Mahai gainera atera du bertan gordeta zeukana. Paper, animalia larruz egindako mapak, larrukietan idatzitako dokumentuak... Nik sekula ikusi gabeko gauzak. Altxorrak iruditu zaizkit.

Mahaian tokia egin eta mapetako bat zabaldu du. Aho bete hortz geratu naiz. Goiko aldean, erdian, letra

larriz RANJARTIAN irakurri dut. Nire bizitzan oso gutxitan entzundako hitza da. Noizbait, aitak azaldu zidan gu bizi garen erresuma oso handia dela, eta izen hori duela, baina inoiz ez dira kezkatu nire etxean basotik kanpoko lurraldeez, eta ondorioz, ni ere ez. Han ikusi ditut marraztuta mendiak, ibaiak, lakuak, murrak, bideren bat edo beste, eta lur eremu hura guztia inguratuz, itsasoa. Eta izenak, inoiz entzun gabekoak: Duna Mugikorren Basamortua, Tar lurraldea, Laku Gorriak, Gurmaren Itsasoa, eta beste. Erabat txundituta nago.

—Zer egin behar dut guzti honekin? —esan du gizonak berekiko.

—Ez zagok denborarik —izan da Maeveren erantzun bakarra.

Mapa berriro tolestu eta arropa artean gorde du. Jarraian, mahaia dagoen tokitik mugitu du bazter batera. Lurrean, ondo disimulatua, tranpol moduko bat dago. Tira eginez zabaldu du. Beste ezkutaleku bat. Arkua eta geziak atera ditu, baina ez dira ehizakoak, ez, gerrarako modukoak dira. Jarraian, oihal batek esalitako zerbait. Mahai gainean jarri, eta oihala gaitetik kendu dio. Altzairuaren dirdira ikusi ahal izan dut kandelen argi ahuletan: ezpata bat. Ezpata handi dotore bat. Oso luzea iruditu zait. Xaflaren oinarrian, heldulekuaren alboan, apaingarri moduko marrazkiak ditu metalean: kiribiltzen eta elkar lotzen doazen bi landareren modukoak, eta biek bat egiten duten puntuan,

ilargi bete bat. Inoiz ikusi dudan eskulanik ederrena da. Egia da esku bateko hatzak soberan ditudala neure bizialdian ikusitako ezpatak kontatzeko, eta ikusi ditudanak zaharrak eta kamutsak zirela ia denak. Hau benetako gerlari baten ezpata da.

—Ismuir, etsaien laino eta galbide, aspaldiko laguna! —Ezpatari hitz egin dio Shir-Tarrek.

Eskuan hartu eta gora altxatu du, xaflari begiratu. Ezin izan diot tentazioari eutsi, eta sorbatzera eramantut hatzak. Ebakia egin dit.

—Aigh! —kexatu naiz.

—Kontuz, aspaldian erabili gabe egoteak ez du esan nahi behar bezala zorrotuta gordetzen ez dudarik.

Ezpata atera duen zoruko zulo beretik zilar gris koloreko kota atera du. Hura gorputzera ondo lotu ostean, gaineratik larruzko pieza bat janzten hasi da, bu-larraren erdian ilargi handi bat ageri duena.

—Hobe izango duk hori soinean ez eramatea, nabarmenedia duk.

Atsoari men eginez, lurrera bota du.

Gerrikoa lotu eta ezpata zorroan sartu du. Arkua bizkarrean zintzilikatu. Poltsa batean jateko apur batzuk batu, eta zahagi bat bete ur prestatu du.

Adi begiratu diot Shir-Tarri. Herrixkan ikusi izan nuen gutxietan gizon apala, erdi makurtuta ibili ohi zen gizajoa iruditu izan zitzaidan. Eta orain, arropa eta arma horiekin, gorputza zuzen duela, gerlari gihartsua

begitandu zait. Ile nahasi luzea sorbaldetaraino iristen zaio, eta sorbalda, bizkar, eta beso zabalekoa dela ohartu naiz, inoiz iruditu ez bazait ere.

Bat-batean, hegazti baten txilio sarkorra iritsi da gure belarrietara.

—Badatoz, uste baino azkarrago iritsi dira —Shir-Tarrek.

—Alde hemendik, azkar! —Maevek.

—Eta hau guztia? Ezin dute aurkitu!

—Uztak nire kontu.

Buruarekin baietz egin du Shir-Tarrek.

—Hartzak eraztun hau, lagunen atek zabalduko dizkik.

Eraztun bat jarri du gizonaren eskuetan. Ilargia ageri da bertan, begi bat zabalik. Marrazkiaren erdia argia da, beltza beste erdia. Mugitu egin du alde batera eta bestera, eta ilargiaren itxura aldatu egiten da. Argiak jotzen badu, betea dagoela dirudi. Ilunpetan jarriz gero, erdia baino ez da ageri.

—Goazen, Liv. —Lehen aldiz esan du nire izena gizon misterioitsuak.

Etxolako atea zabaldu eta gau ilunera atera gara. Shir-Tarrek txori baten oihua dirudien hotsa atera du. Eta supituan, zuhaitz artetik zerutik amilduz, zapelatz bat jausi da. Suari bezala geratu naiz, txundituta begira. Hegoak zabal-zabalik dator, baina bat-batean, bi hegalkak jaso ditu, gorputzera bildu, adar arte estu bat igarotzeko; jarraian, aurrean agertu zaion adar lodi

bat saihesteko, hegoei eragin die indartsu, eta airean zintzilikatuz bezala, gainetik igaro du ozta-ozta, ia lumekin ukituz. Dotorea benetan. Gerlariaren besoan pausatu da, su koloreko begiekin hari zuzen begiratur.

—Gyrah, lagun leiala, hator hona! —Burua ferekatu dio hegaztiari.

Laster batean, besoa gorantz mugitu, eta Gyrah berriz ere hegaldatu da. Hegoen goiko aldea marroi ilun kolorekoa da, beheko aldea, berriz, bi marroi tonu ezberdin tartekatuz dago osatua, gorputza bera bezalaxe. Atzapar indartsuak ditu, horiak, azkazal zorrotzekin. Begirada, argia, bizia, begi laranja indartsuak.

Kolore berde iluneko kapa batek estaltzen du Shir-Tarren gorputz osoa. Kaparen txanoan ezkutatu du burua ere. Aurpegia ia ez zaio ikusten, beldurra ematen du. Nik ere burua estali dut.

Maeve besarkatu du nire bidaide berriak. Ondoren, niregana hurbildu da emakume maitagarria.

—Dena ondo joango da, lasai.

—Beldur naiz, Maeve, ez dut ezer ulertzen...

Bi eskuz aurpegiari heldu, eta kopetan eman dit muxu.

—Goazen! —esan du Shir-Tarrek.

Basoan barneratzen ari garela azken aldiz begiratu diot txabolari. Jada atea itxita dago, Maeve ez da ageri.

Pago erraldoi artean sartu aurretik, laino artetik agertu den ilargiari begiratu dio Shir-Tarrek.

—Amandre, gidatu gure pausoak. —Burua makurtu du erreberentzia eginez.

Basoan barneratu gara, isilik, beti aurrerantz. Tartean behin, zapelatza sumatzen dut gure gainean hegan. Oraintxe aurrera jotzen du, oraintxe guregana hurbiltzen da. Tarte luzea egin dugu oinez, aspaldinabil inoiz egon gabeko tokietan, nire etxetik sekula egon naizen urrunen.

Zuhaixka baxu batzuk dauden eremuan sartu gara. Makurtuta ibili beharrean aurkitu gara adar artean.

\* \* \*

Mugimendu inguratzailerak eginez hurbildu dira etxolara. Isilik, gaueko soinuekin euren asmoa estaliz. Gero eta hurbilago, iheserako tarterik utzi gabe. Goitik behera beltzez jantzita doaz, baina euren oihalak bereziak dira, mugitzerakoan beltza more bihurtzen da ikusten duenarentzat, more ilun, more beldurgarri. Aurpegia estalia dute oihal hori bera erabiliz, begiak baino ez zaizkie antzematen. Armak eskuan dituztela hurbildu dira. Taldearen buru egiten duena aurpegi agerian doa, eta eskuin besoa altxatu du esku ahurra zabalik. Supituan hatzak bildu ditu, ukabila itxi. Une horretan denak geldi-geldi geratu dira. Ez da ezer entzuten. Tximiniatik ke ahul bat ateratzen da. Buruzagiak bere alboan dauden bi Moreei aurrera egiteko agindu die.

Urrats geldoekin, atearen aurrean kokatu dira. Bietako batek, eskuaz maratilaria heldu, eta lagunari begiratuta, haren baiezko keinua ikusi duenean atea zabaldu du azkar eta urduri. Besteak arkuaz destatu du barnealdea, eta geldi geratu da.

Emakume zahar bat ikusi du etxolaren erdian, pergaminoz betetako mahai baten alboan. Gorputz osoa bustia du, erabat dirdiratsu, olio balitz bezala. Esku batean, urdin koloreko gar bat, eta bestean hauts batzuk ditu. Zerbait murmurikatzen ari da.

—*Ekeles fehu Mani! Ekeles fehu Mani!*

Eskuan dituen hautsak bere oinetara bota ditu atsoak, eta Moreek ezer egiteko denbora izan aurretik, eskuko gar urdina ere bai. Biek bat egin dutenean, gorputz osoa gar urdin batek hartu du Maeve. Erretzen ari da, baina su urdin horrek ez du berorik botatzen, soldaduek txundituta begiratzen dute.

—Sorginkeria! —esan du ahapeka bietako batek.

Emakumeak ez du oinazetik sentitzen, antza. Begietan ere sugar urdin bat duela begiratu die, eta bere oititz moduko erretolikarekin jarraitu du.

—*Ekeles fehu Mani!*

Izozturik geratu direla dirudi: atsoa erretzen etxe barruan, bi soldaduak atarian, geldi. Etxea inguratzen duten guztiak ere, adi. Basoa, isiltasunean murgildurik.

Inork ez du entzun Maevek berekiko esandakoa:

—Azken Bean Feasaren heriotza!

Halako batean, eztanda urdin bat gertatu da. Api-rikuko bi Moreak atzerantz atera dira airean, uhin ikusezin batek bultzatuta. Nagusiaren oinetaraino iritsi dira. Eztrandak gar urdina zabaldu du, eta jarraian bere baitan bildu da, su handi batek, su arrunta, su laranja, su beroa, etxe guztia hartu duen arte.

Orduan bai, Maeveren oihuak entzun dira. Tarte oso txikia izan da. Su goseti hark etxe guztia harrapatu du, eta ez du asko behar izan dena irensteko. Birrinduta utzi du etxola eta barruan zegoen guztia. Shir-Tarrek zituen dokumentu guziak hauts bihurtu dira.

—Sorginkeria —errepikatu du durduzatuta dagoen soldaduak.

Talde haren buru egiten duenak guztiei hitz egin die.

—Entzun adi. Inori hitz erdirik ez honi buruz, batez ere kapitainari. Iritsi garenean sutan aurkitu dugu etxe hau. Ulertuta?

Denek baietz egin dute buruarekin. «Sorgin kontuek urduri jartzen dute kapitaina, ez dut alferrikako errietarik jaso nahi».

\* \* \*

Atera gara zuhaixka eremutik. Zonalde zingiratsu bat topatu dugu aurrean. Burura etorri zait behin aitak esandakoa: «Basoaren erdian, Zingira Galkorra dago. Ez gara inoiz horra joaten». Hor sartu den inor ez da bueltatu. Labirinto baten modukoa da.

Shir-Tar mugimendu seguruz hurbildu da ur ertze-  
ra. Hostoak eta adar hautsiak baino ez dauden lurrean  
aztarrika moduan hasi da, zerbait aurkitu nahian. Ez  
dut ulertzen zertan dabilen. Halako batean, soka bati  
heldu dio.

—Hemen dago! —esan du berekiko.

Txikotari tira egin dionean, oihal handi bat ikusi  
ahal izan dut. Oihalean itsatsita hainbat hosto eta egur  
ditu, basoko lurra irudikatuz. Estalkia kenduta, txalu-  
pa bat agertu da.

## AURKIBIDEA

Ihesa		11
Shir-Tar		21
Sorgin-orratzen zingira		32
Bidearen hasiera		46
Hegoaldeko magalean		62
Muino Mortuetako borroka		75
Ezkutuko errituala		91
Ahots Negartien basoa		100
Sherten mehaka		115
Basamortuan barrena		128
Shert jainkoaren giltza		145
Basamortuak irentsia		164
Traizioa		174
Ibaian		188
Ura hiria		197
Zingiradia		210
Bideak gora egiten du		224
Giza hostoak		237
Banantzea		254
Hiriburuan		266
Gotorlekuan sartu		278
Odol-ilargia		287
Odol-ilargiaren alaba		297
Etxean		303